



OSTALARITZA SEKTOREKO LANGILEEI

Hilabete batzuk pasa ondoren ostalaritzako hitzarmen sektoriala negoziatzen, ezinezkoa egin zaigu hitzarmen bat adostea.

Alde sindikalak bere plataforma modu esanguratsu batez murriztu du, aldi berean patronalak jarrera itxi eta gogorra mantendu du eta ez ditu bere parametroak apur bat ere aldatzen. Hori dela eta, eduki gutxiko hitzarmen bat proposatzen du sektorerako eta amaituta uzten ditu negoziazioak.

Honela daude momentu hauetan bi posizioak :

Patronala

3 urte

KPI+ 0,61

0 ordutako ihardunaldi murrizketa

Sindikatuak

urte 1

KPI + 1,15

10 ordutako ihardunaldi murrizketa

2 atsedeen egun astean

% 80-a gaixotasun bajagatik

Kolektibitateentzat subrogazioa

Argi dago bi jarrerak elkarrengandik oso urrun daudela, baina LAB-en badakigu bi alderdietatik aukera dagoela sindikatuen eskaerak biltzen dituen akordio bat lortzeko. Hala ere, patronalaren jarrera da, bere negoziatzeko borondate hutsarekin, sektoreko konbenioa berritzea galarazi dezakeena.

Sektore hau, ongi dakizuen bezala, berez oso prekarizatua dago: eskupeko dirua, behin behineko kontratu asko, aparteko orduak, lan egutegi eza, ETT enpresen gehiegizko erabilera, inmigranteen esplotazioa eta txantajea...

Hau dela eta, behartuak sentitzen gara sektore hau mobilizatzea eta patronalaren immobilismoa aldaraziko duen greba deitzea irailaren 23-an.

Era honetan, LAB-etik, sektoreko langileei animatzen zaituztegu greban parte har dezazuen eta kalera irten zaitezten zuen lan baldintzen alde eta hitzarmen duin baten alde indarrez erantzuteko eta bide batez patronalaren jarrera bortitza salatzeke.

23-an bertan manifestazio bat ere egingo da, Donostiako Boulevard-etik abiatuko dena 12:00etan, eta bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

BORROKATU ZURE HITZARMENAREN ALDE